

**WUHAI • Txina**

Zhou Ziyang (zuzendaria, gidoilaria)
Xuan Huang (aktorea)
Luna Wang eta Quian Yini (ekoizleak)

Ziyang: “Nire lana giza izaeraren sakontasunak ikertzean datza”

SERGIO BASURKO

Bere bigarren film luzearekin sartu da Zhou Ziyang Urrezko Maskorren lehian. Itxuraz zoriontsua dirudien bikote ezkonberria aurkezten digu *Wuhai*-k, baina senarrak bizitza ho-bea erdiesteko ahaleginean sortu di-tuent zorrek zoriontasun horren gain-behera eragindo dute.

Zuzendari eta gidoilari txinatarra "zinema errealistatzat" jo du bere lana eta "giza izaerarekin" duen harremanean murgiltzen dela argudiatu du: "Tristatu egiten nau garapen ekonomiko azkarra nola kaltetu dituen gizarte nahiz pertsonak, eta gauza materialak lortzeko nahi horrek no-la eragin digun. Sistema horri kritika egin nahi izan diot".

Ziyang-ek azaldu duenez, *wu hai* hitzez hitz 'itsaso beltza' esan nahi du eta Mongoliako eskualde baten izena da. "Leku fisiko bat da. Giza izaera ere iluna da, eta itsaso bat ere bada, zaitasunez beteta dagoena", esan du zuzendariak. Filmeko lokalizazioak "duen izaera magikoagatik" hautatu zuela esan du, "basamortua, itsasoa, hiria... dena nuen bertan". Horren harira, "bertan filmatzea ez zen gauza samurra izan, haizeak gogor astintzen zuen eta zenbaitetan zutik mantentzeko ere lanak izaten genitu-en", gaineratu du ekoizleetako batek.

Bestalde, zinemagleak adierazi duenez, Matthias Delvaux belgikarra da filmeko argazki zuzendaria eta elkarrekin lan egin duten bigarren aldia da, "ideia berak ditugulako". Idazketa-dagokionez, aldiz, "gidoiak idaztea eta pertsonaien izaeran sakontzen saiatzea" gustatzen zaiola esan du. Zentzu horretan, "ikuslea bere barru-



Zhou Ziyang zuzendaria eskuinean, Xuan Huang aktorea behean eta filmeko bi ekoizle streaming bidezko prentsaurrekoan.

ra begiratzea bultzatzen duen fabula baten modukoa da".

Dinoauroen irudiak ere badu le-kurik filmean. Protagonistaren porro-tetako bat sortu nahi zuen dinosauro-parke bat da, eta irudi hori askotan agertzen da filmean zehar. "Dinosau-roak super-errealismoa deitzen duda-naren zati dira. Protagonista dinosauro-parkera joaten ikusten dugunean muturreko egoeran dago, eta hori iru-dikatzen dute dinosauroek, edozer gerta daitekeela, muturreko erre-a-lismo hori".

Huang Xuan aktore protagonistak bere pertsonaiak jasaten duen presioa izan du hizpide: "Gidoia irakurri nuen ez nuen ezer berezirik sentitu, muturreko pertsonaia zela baino ez. Filmatzen hasi ginenean ohartu nintzen jasan behar zuen presioaz, pertsonalki ere eragin zidan, filma-ketan zehar zuzendariarekin hainbat eztabaida izateraino", aitorru du. Antzeten dituen paperei dagokienez, istorioak "erakartzen" ote duen be-giratzen duela esan du, komertziala eta independentea den bereizi gabe.

Presio horri buruz ere mintzatu da zuzendaria, bere hitzetan, "bihotz oneko pertsona bat, gizarteak eraginda, gauza bortitzanak egitera iritsi daite-ke. Hori da nabarmendu nahi izan du-dana, presio sozialak noraino eragin gaitzakeen".

"Benetan uste dut jendearen ar-tean oihartzun handia izango duen filma dela, istorioko pertsonaien bo-rrokek gaur egun Txinan gertatzen ari denaren errealitatea irudikatzen baitute", esan du zuzendariak, "in-darra duen filma dela".

Drowning in a black sea of greed

Considered to be one of the most promising directors in contemporary Chinese cinema after winning several awards at various festivals with his debut film *Old Beast*, Zhou Ziyang is currently presenting his latest film *Wuhai* in the Official Selection at San Sebastián. The title refers to the small town in Inner Mongolia which provides the backdrop for the action that turns on a happily married couple struggling with financial problems. According to the director, rapid economic growth, greed and distorted money-orientated values have caused a great deal of harm to society in the last few years and his film is like a critical fable that encourages people to reflect on this. It also investigates subjects like emotions, family issues, social problems and the human condition itself. Zhou Ziyang added that he wanted to provide drama, philosophical thinking and more sophisticated aesthetics within the form of a genre film, and he hoped that it would break new ground in Chinese auteur films. He firmly believed that the struggles of the characters in the story embody the reality of what is happening in China today. The Chinese filmmaker, who also wrote the script for the film, explains that *Wuhai* also means "black sea": in his opinion human nature is dark and is like an ocean full of problems and changes.

IKUS-ENTZUNEZKO IKASTAROAK

CURSOS AUDIOVISUALES
2020-2021

BIDEO EKOIZPENERAKO LAGUNTZAK
AYUDAS A LA PRODUCCIÓN DE VÍDEO
Grabazio eta edizio baliabideen lagapena
Préstamo de material de grabación y edición
Proiektuak egiteko aholkularitza
Asesoría de proyectos



Realización de Documentales
OSKAR TEJEDOR

Guion Avanzado
MICHEL GAZTAMBIDE

Dirección de Cine
PABLO MALO

Zuzeneko Soinua eta Audio Diseinua
XANTI SALVADOR

Fikzio Zuzendaritza eta Aktoreekin LANA
ANDER IRIARTE

Producción Audiovisual
ÍÑAKI SAGASTUME

Gidoigintza Hastapena
ANDONI DE CARLOS

LARROTXENE KULTUR ETXEA
Intxaurrondo, 57 · 20015 Donostia (Gipuzkoa)
© 943 291 954
larrotxenekulturetxea@donostia.eus

Larrotxene Bideo
@dk_larrotxene

